

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

139/2024 Foru Agindua, apirilaren 9koa. Etxabarri Dibiñan, Zigoitiko udalerriko lurzoru urbanizaezinean, arazketa sistema (HUA) berritzeko proiektuaren interes publikoa adieraztea

Zigoitiko Udalak obra lizentziaren espedientea izapidetu du, Etxabarri Dibiñako hondakin urak tratatzeko arazketa sistema (HUA) berriaren proiektua egiteko, Zigoitiko udalerriko lurzoru urbanizaezinenaren 6 poligonoko 188 lurzatian.

Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Etxabarri Dibiñako Administrazio Batzarrak sustatu du proiektua, gaur egungo arazte sistemaren egoera dela eta, 1991koa, zerbitzuaren kalitatea ez baita bermatzen. Bestalde, Etxabarri Dibiñak gora egin du etxebizitza eta biztanleria kopuruan, eta, horren ondorioz, egun dagoen arazketa sistemak ez dauka ahalmenik jasotzen duen hondakin uren isurketa tratatzeko. Egungo HUA kendu eta berria jarriko da lurzati berea, 600 biztanlerako dimentsionatuta.

Arazketa sistema berria makrofitia aintzira bat da. Bertan, ura horizontalki ibiltzen da ingurune granularrean eta landareen errizoma eta sustraietan zehar. Oinarrian 70 metro luze eta 43 metro zabal ditu gutxi gorabehera, eta sarreran 1,40 metro inguruko sakonera du, eta irteerari 1,75 metrokoa. Makrofitia aintziraren aurretik, aurretratamendu bat egingo da bahe inklinatu automatiko batekin eta hormigoï armatuzko andel prefabrikatuz osatutako 2 hobi septikorekin. Instalazioaren perimetroa hesitzea proiektatu da, 2 metroko garaierako bihurtura sinpleko sare baten bidez, bai eta hondakin uren 2 kolektoreen azken zatia berritzea ere.

Udaleko arkitektoak egindako txostenean adierazten da lursail horiek lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta daudela eta, udal plangintzako arau subsidiarioen arabera, Z4 "Leheneratu beharreko basogintzako babes zona" eta Z5 "Nekazaritzako babes zona" gisa kalifikatuta daudela, eta horietan "erabilera publikoko eta interes sozialeko eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak eraikitze erabilera eta jarduerak" baimentzen direla. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako lurralde plan sektorialaren arabera, proiektua balio estrategiko handiko lurzoruaren kokatzen da eta, erabilera matrizearen arabera, onargarriak dira onura publikokoak eta interes sozialekoak.

Udal txostenak jasotzen duenez, azpiegitura berriak 4.400 metro koadroko azalerari eragiten dio; beraz, ez da beharrezkoa lurzoru urbanizaezinean plan berezi bat izapidetzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 4. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Eskaeraren berri eman zaie Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, dagozkion informazio ondorioetarako. Natura Ondareak jakinarazi du egindako lurzati ez dagoela naturagune babestu batean sartuta, ez eta katalogatutako espezie intereseko eremu batean ere.

Aurrekari horiei honako oinarri juridiko hauek aplikatu behar zaizkie:

Lehenengoa. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak eskumena du aztergai den espedientea ebazteko, bat etorri Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 lege-gintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan eta

Lurralde Orearen eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen urtarrilaren 30eko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2024 Foru Dekretuan xedatutakoarekin.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatuzetik babestu duen eta landa egoeran dagoen lurzoruan, "salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilerara batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira."

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru aldundiak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogeit egunez jendaurrean egoteko izapidea bete ondoren.

Bigarrena. Otsailaren 22ko 63/2024 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onespina ematea eta jendaurrean ipintzeko 20 eguneko epea irekitzea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Argitalpena 27. zenbakian egin zen, 2024ko martxoaren 4an. Horretarako emandako epearen barruan ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

Hirugarrena. Proiektuaren interes publikoa dela eta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 86.2 artikuluan jasotakoaren arabera, uren arazketa toki erakundeentzat funtsezkotzat eta erreserbatutzat jotako zerbitzuetako bat da. Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien berezko eskumenen artean ezartzen du zerbitzuak ematea hiri erabilerako uren ziklo integralean. Arlo honen barruan sartzen dira herriguneetako hiriko hondakin uren eta euri uren saneamendua edo bilketa eta hiriko hondakin uren arazketa.

Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuen 11/1995 Foru Arauaren 7. artikuluan, erakunde horiei tradizioz dagozkien eskumenen artean hau jasotzen da: "Erakundearen jabetzakoak izanik, jendeak erabiltzen dituen instalazioak eraiki, handitu, kontserbatu eta konpontzea", bai eta "...Kontzejuaren barrutian, interes berezia duten obrak (...) burutzea eta bestelako zerbitzuak ematea" ere.

EAEko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialak 42. artikuluan, landa lurzoruan baimendutako erabileren artean ezartzen ditu komunitate ekipamenduetarako instalazioak, publikoak edo pribatuak, beren izaera eta ezaugarriengatik landa ingurunean kokatu behar diren zerbitzuak ematera bideratuak, alde aurretik onura publikokotzat edo gizarte interesokotzat adieraziak, eta berariaz adierazten du zerbitzu publikoen ekipamendua, "beren ezaugarri funtzionalengatik, bateraezina izan baitaitezke batez ere beste erabilerara batzuetarako diren zonetan ezartzeko."

Kokapen zehatz horretan kokatu beharra, landa ingurunean, azpiegituraren berezko ezau-garriek eragiten dute.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Zigoitiko udalerriko lurzoru urbanizaezinean (6 poligonoa, 188 lurzatia) kokatuko den Etxabari Dibiñako arazketa sistema (HUA) berritzeko proiektuaren interes publikoa adieraztea, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal baimena lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, bi hilabeteko epean, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua jarri ahal izango zaio, egintza eman duen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin. Interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtsu ere aurkez dezakete.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 9a

Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua
ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA